

**Etienne Decept**

**AMATXI**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: *Amatchi: pastoralak kantatua: hitz neurtuz eta larriz egiña: bi-zatitan*, Ettiene Decrept. *RIEV*, 84-133 o., 1914.

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00579.htm>

# AMATXI

## PASTORALA KANTATUA. HITZ NEURTHUZ ETA LARRIZ EGIÑA, BI ZATHITAN.

Teatriak erakhisten dauku: Exkerretarik, agertokiaren hastetik eta gibelerat, ostatu handi baten aitzin-aldia; hunen luzetasun guzian kape-na bat arrosaz eta mahats aihenez estalia. Etxe zolako bi salak argituak dire bi leiho zabaletarik: Lehena da sukaldia; bertzia sal-erosteko, edateko, tabako eta supixtekuen tokia. Bien artian ezkaatza. Hunen argamasari bizkarrez, leihotik ageri da baxerategi dirdirant bat.

Lehenbiziko estajan, etxiaren luzetasun guzian, bada zurezko balkoin bat zoñetarat idekitzen baitire geletako athiak. Bigarren estajan eta hegastegitik beheraxago sellaruko leihua, eta hunen bi sahetsetan usotegiko zillo, hirur xokodunak. Leiho horren azpian etxiaren era-kutskia:

*Ongi Ethorri: Jaterat eta edaterat izanen duzue.*

Hitz haukien bazterrian eta paretan tinta-tuak, beltzez, pipak, botillak eta basuak.

Kapenak badauka agertokiko zabaltasunaren erdia.

Bi mahañ lerro ibeñiak daude azpian.

Eskoñetarik, hejako aintziñ aldia eta etxoleta-kuenak. Harrasi apha, errexki ixtapeka ditaken bat, doa agertokiaren aintziñetik gibeleraño, xuxen, han kapena itzulikatzen du eta baratzen da athelada batian, zointarik baita barroko sar lekhua. Harrasi horren erdian gereta zabal bat, hejalat heltzeko, harrasia ixtapekatu gabe. Hejaren eta etxiaren artian, pillota plaza ttiki baten luzamena. Plazaren pareta egiten du etxe zahar baten bizkarrak.

Bidexka bat, gibealeko harrasiaren parrian iragaiten da lehenik, gero, oiherki, plaza ebakitzen du, hejaren gibelian gordetzeko: Ager ditake, haratago, haritz floka baten ondotik, azkenik etxe multzo batek eta elizik arras estaltzeko. Urrunago, bi zurtxuri eta haltz lerroren artian;

baratxe aintziñatzen da urhandi urdiñ eta garbi bat. Arras urrun: Mendiak.

## Hitzkariak

**AMATXI:** (*Gaxuxa*) ostalera, 32 urthe.

**MAIDER:** Amatxiren alabatxia, 18 urthe.

**KATIXA:** Mainerren ama (farnesiatua) — Amatxiren ahizpa zaharrena, 42 urthe.

**KLARA:** Kongregazioneko nexka, 20 urthe.

**EMAZTE BAT.**

**BIGARREN EMAZTIA.**

**NEXKATTO BAT.**

**OSTATUKO SEHI BAT.**

**XALBAT:** Zurgin nausia, 28 urthe.

**PATZIKU:** (*Aise*) Amatxiren anaia (Xantria), 50 urthe.

**SANSIN:** (*Llarru*), Mainerren aita; ostaler ohia, 50 urthe.

**ZURGIÑ LANGILLE BAT.**

Emazteki eta gizonak. Proasionezko gizon gazte aphainduak. Kongreganistak, haundi eta ttiki. Muttiko eta nexkatto xuriz jauntziak. Betterrak. Xirolari, gaitari, atabalari eta trunpetariak.

# ZATI LEHENA

Gerthakaria gure denborakua da:

Besta Berri Oktaban, Laphurdin iragaiten dena.

## AGERRALDI LEHENA

*Emazte eta nexkatxa batzuek hari dire alda-re baten aphaizten hejari buruz, bañan bide-aldeetik; beraz, ez dire aldariaren sahetsa eta zenbeit adar lore baizik ageri. Aldariaren gibelian ibeñirik dagon oihal gorria itzultzen da hejaren aintziñeko pareterat, bi metraz.*

*Erdiko mahañian musian hari dire laur gizon. Bertze batzuek beha dagozkote. Mahañ guzietan dafallak, basuak, botilla hutsak, kikerak, barrejaturik. Ezagun da jende hañitz hor bazkaldu dela. Sehiek alxatzen dituzte traste guziak eta sukalderat erematen: Zaluki badabillza.*

*Teatreko estalkia alxatzen delarik, emaztiak  
mulxokatu dire kongregazioneko nexka  
gaztienekia, aldariaren aldian.*

*Kantatzen dute batian.*

**GIZONEK ETA SEHIEK OSTAUAN:**

Lehen partida debruak gandu.

**ZENBEITEK:**

Ttiki hortarat jo ezpazindu  
Falsua etzuten irabaziko,  
Nahiz duketen sobera joko.

**DENEK:**

Lehen partida debruak gandu.

**XALBATEK:**

Huni-Xemartiñ. Gazen zuhurki.

**PATZIKU:**

Biak inbido!

**XALBAT:**

Biak iduki.

**EMAZTIEK ETA NEXKEK ALDARE AINTZINIAN:**

Aldare hunek ixur'ona du.

**ZENBEITEK:**

Ganden urtekua ginduen zaindu,  
Bañan Amatzik emanikako  
Unziek dute hau edertuko.

**DENEK:**

Aldare hunek ixur'ona du.

**EMAZTE BATEK:**

Ausarki lore emozute ba.

**BIGARREN EMAZTIAK:**

Denak gan dire.

**EMAZTE BATEK:**

Nun dut alaba?

*Exkerreko kantariak ixiltzen dire eta karteri jarraikitzen. Eskoñekuak, aldiz, aintziñatzen dire erdirat. Kantatzen ez duten batzu bakharrik gelditzen dire aldariaren aintziñian.*

**NEXKATTO BAT:**

Hemen naiz, hemen.

**EMAZTE BAT:**

Baratze hortan baditun, omen,  
Arrosa xuri ikhusgarriak.  
Bill'atziñ zalu.



**NEXKATXA:** (*haurrak erakusten dituelarik*)

Kantu berriak

Behar nituzke errepikatu...

*Maidar agertzen da ostatuko athian.*

## **BIGARREN AGERRALDIA**

Berak — Maidar

**MAIDER:**

Gure kapenan billduko ditu.

Zato, Janeta...

*Nexkatxa hurbilltzen da eta kapenatik hartzen ditu arrosak.*

**MAIDER:** (*nexkattueri*)

Zatozte denak,

Eta har hosto atzo emanak.

*Nexkattuak elgarri pusaka edo egosiaka mulxatzen dire Maidarren aintziñian eta hedatzen dituzte beren hostuak.*

*Maiderrekin bere manamenduko xiriarekiñ jotzen du neurri bat, hutsik.*

*Nexken gurguri hirritsua entzunen da.*

**MAIDER:** (*narrizki*)

Ixil zaudezte. Segi xiri hau.

Orai kasu: Bat! Bia! Hirur! Lau!

**NEXKEK:**

Jesus on illki zauku aldare barnetik,  
Bere haurren erdian gozatziaatik.  
Lehengo denboretan, nausien nausia  
Bardiñ gure arterat hola zen jautsia.

Zer mirakullua!

Lur huntan zerua

Hor dugu egun.

Jainkoak ekharri

Bozkario hori

Kanta dezagun.

*Sartzen dire, haizia bezala, dozena bat nexkatxa, Mainerren adiñsuak, eta, hau bezala, xuriz aphainduak.*

## **HIRURGARREN AGERRALDIA**

Berak — Klara — Nexkatxak

**KLARA:** (*Maider besarkatzen duelarik*)

Kantu bat badugu zuretzat guk ere.

**MAIDER:** *(hirriz eta baztertzen delarik)*

Xoro ez bertzena!

**NEXKATXEK:** *(alegia narriotuak, inguratzen dute Mainer eta buruz jauresten, kantatzen dutelarik)*

Herriko lore

Bereziena,

Ethorri gare

Xuxen xuxena,

Lehen bai lehen,

Etxe huntarat,

Erregiñaren

Lausengatzerat.

**MAIDER:** *(hirriz, xoroki)*

Xoratu zaizte...

**NEXKATXEK:**

Sasi denetan,

Erran daukute

Xoriek betan:

Beiala zuazte!

Maiderek badu,

Gaur ekharria,

Mantaliñ pondu

Xoragarria.

**MAIDER:**

Bai! Amatxiren emantz berria.

*(sehi bati)*

Indazu hunat Maria...

**NEXKATXEK:**

Maiderek badu,

Gaur ekharria,

Mantaliñ pondu

Xoragarria!

**MAIDER:**

Xoragarria...

Sehiak mantaliña ekharri du eta, hartaz, Maiderrri bere adixkidiek estaltzen diozkate burua eta sorbaldak, hirriz hari delarik.

**NEXKATXEK:** *(eskuak tinkaturik)*

Beha zazue: Dantela fiñez

Egiña denez!

Beha zazue: Ama birjina

Ez den hau, dena!

**MAIDER:** *(gero eta gihiagoka hirriz)*

Xoratu zaizte...

**NEXKATXEK:**

Sasi denetan Erran daukute...

**MAIDER:**

Xoratu zaizte!

**NEXKATXEK:**

Xoriek betan:  
Beiala zuazte...

**MAIDER:**

Xoratu zaizte!

**NEXKATXEK:**

Maiderek badu,  
Gaur ekharria,  
Mantaliñ pondu  
Xoragarria.

**MAIDER:** (*batian*)

Bai! Amatxiren  
Emantz berria.

**KLARA:**

Nahiz dabillkan bisai gohorra,  
Amatxik ez du bihotz idorra.

**MAIDER:**

Ezagutzen bazindute  
Harriturik zindauzkete.

(Ixiltze bat.)

**MAIDER:** (*ezti eta arraiki*)

Amatxiren bihotza

Beretzat da borthitza.  
Ez du ikhusten gaitzik  
Dakharkiguna baizik.  
Hola, alabatxiak  
Dituen miñ ttikiak  
Bethi agertzen zaizko  
Amatxik jasaiteko...  
Etzautzue hoi bitxi?  
Zoin ona den Amatxi!

#### **NEXKATXEK:**

Zuk baituzu merexi...

*Berrogoi eta hamar urthetako gizon gorrast,  
gizen, hartzi bat, athorra mahunka has,  
gerrikua dilindan, agertzen da ostatuko  
athian: Xanxiñ da.*

## **LAURGARREN AGERRALDIA**

Berak — Xanxiñ

**XANXIÑ:** *(airepuskan)* Ongi errana! Nik ere uste dut emantz bat pollita egiñ niola, Xilerate-

kuan, Amatxiri, alabatto hau haren eskue-  
tan utzirik.

**KLARA:** Ziñez! Handik itzulzian egiñ zindiona  
baño, zure presuna maitagarria emanaz.

**MAIDER:** O! Klara!

**XANXIÑ:** (*nasaiki*) Zer nahi duzu erran, haur ede-  
rra?

**KLARA:** Hemen egiten duzunarentzat... han egon  
zintazkeela.

**MAIDER:** Ikhus! Ikhus!

**KLARA:** Horren alde jartzen zare... zuzen da. Zure  
aita delakotz. Bañan, ez dautazu zinzurrian  
sarraaziko behiñ errekarat uzkali eta  
berritz ere uzkaliko zaituztela, ezpauzue  
etxetik urruntzen.

**XANXIÑ:** Uzkalli? Uzkalli? Laster errana da. Eziñ  
bertziak egiten du gure ohia. Batzuenzat  
bezala, estropua ene alde gertatu balitz...  
ahurka erabiliko nituen unza urhiak...  
Purrustaka!

**KLARA:** Prat! Aski zinduen lanari lotzia, eta ez  
bestari.

**XANXIÑ:** Lanari, ni? Zertan zabilza? Lanian hari  
den ostalerik othe da nihun?

**MAIDER:** (*eztiki*) Amatxi hari da.

**XANXIÑ:** (*sorbaldak alxaturik*) Emazte bat delakotz. Ongi atxikia den ostatuko jabiak ez du bertze egiñbederik, heldu direneri atsegiñ egitia baizen. Hekiekiñ behar du jan, edan, musian hari, hizketan ere, noiz nola, asarratu gabe, eta azken hitza pagatzalleari utzi. Bertzalde, behar ditu izan janbide eta edanbide gaitzak, eziñ ase ditazkenak... eta kaskua berotzen bazajo ere ezdu galgarri behar. Nola nahi duzu talendu hoik guziak ardiets detzan, bertze lanetan hari bada? Ez, haur maitia: Aphal lezake bere burua, ostalerak, lanari jarraikiz. Herri bakotxian diren handienekiñ dabillanak behar du bere errunka atxiki, bera ere handienetarik baita.

**KLARA:** Iduriz bederen... eta tirriaz.

**XANXIÑ:** Horrek ikhusterat ematen dautzu, hiri handi batian izatu banintz eta ez hama-bortz ehun arimetako sasi huntan, ene fortuna egiñen nuela eta haukiena ere. — Nik, bihotz zabala baitut, ene ahidiak gozoki



biziaziko nituen... nik... bai andre... besta  
egiñez eta alfer egonez.

*Kantatzen du.*

Ba! Ni naiz ostalerra!  
Airos, gizen, gothorra.  
Jale, lizun; jokolari,  
Hordi eta alferra.  
Iruzki lausengu batek  
Gorritu daut sudurra.  
Gerriko gañetik gantzak  
Zartarazi athorra!  
Urhats guti derabilzkat  
Gohor baitut hezurra.  
Bañan —gizon zuhurra—  
Hoberenaz hazten ditut  
Sabel eta zintzurra...  
Jainko onak eman bezat  
Irauteko indarra!...

*(Gaphelua atheratzen du burutik.)*

*Xanxiñ kantaz hari delarik, muslariak hurbil-  
du dire eta inguratu dute. Hirriz eta esku-  
zartaz onhartzen dituzte Xanxiñen pher-  
suak eta gero denek errepikatzen, zenbeit  
hitz kanbiaturik.*

## **MAIDER:**

Hauxet da ostalerra!  
Airos, gizen, gothorra.  
Berak dion hiñeraño  
Othe dugu alferra?  
Ez bide zajo edanez  
Hola pixtu sudurra?  
Zer larderi derabillzkan?  
Gantzak hautsi athorra!...  
Ez egiñ ahal urhatsik  
Gohor baitu hezurra!  
Hau da gizon zuhurra?  
Maiz atxikitzen baduzu  
Zinzur hori idorra,  
Emanen dautzu Jainkoak  
Irauteko indarra!...

## **BORTZGARREN AGERRALDIA**

Berak — Katixa

*(Jargi gurpilldun batian sehiek  
errestatzen dute Katixa farnesiatua.)*

**KATIXA:** (*Xanxiñi*) Bethi bera izanen zare zu: Lan eziñ bururatuzko bat egun izanki eta, hemen zaude, zu, laguntzarik eman gabe —ez neri ondikotz!— bañan ez eta ere ahizpari eta sehieri! Ederrago laiteke zureganik lanari lotzia zure bizioen gorestia baño! Aski ezagutuak dituzu.

**MAIDER:** O! Ama.

**XANXIÑ:** (*umillki*) Ez ditake hirri pixka bat egiñ?

**XALBAT:** (*hirriz*) Hé! Hé!

**PATZIKU:** (*trufant*) Bai zera?

**KATIXA:** Entzuten dituzu?

**XANXIÑ:** (*asarratua bezala*) Hola balitz ere? Ene etxian naiz, eta petrenitzen dut nahi dutanaren egitia, jabe naizen tokian... Ah!...

*Amatxi, suhardura gorrian, sartzen da.*

# SEIGARREN AGERRALDIA

Berak — Amatxi

**AMATXI:** (*boz garratzez, betezpalak tinkaturik*)

Zure etxian diozu? Erradazu berritz?

**XANXIÑ:** (*ahalkatua*) Amatxi!

**AMATXI:** Erradazu oraño zure etxian zarela!...

**XANXIÑ:** Gurian...

**AMATXI:** (*fuliatsu*) Ene etxian zare —aditzen nauzu?— eta ezpalire hauk (*erakhusten ditu Mainer eta Katixa*) etzintezke oren bat gehiago hemen egon. Asia naiz, lephoraño, zu bezalako alfer handi baten haztiz! Zu bezalako zirzill baten!...

**XANXIÑ:** Amatxi!

**AMATXI:** Nola? Botilla bethetzerat igorri eta, bezperetarik lekhora prest izan gaitezen, hemen atzematen zaitut espantuka hari?

**XANXIÑ:** Ba othe dakit... nik... botilla bethetzen?

**PATZIKU:** (*hirriz*) Hori... etzizautan gogoratuko...

*Kantatzen du.*

Manatu bazindu

Botilla husteko  
Etzen hunako...

**DENEK:**

Etzen hunako.

**PATZIKU:**

Egizazu kondu  
Xanxiñen gustuez:  
Botilla hustuez  
Ez du axolarik.

**DENEK:**

Ez du axolarik.

**XANXIÑ:** (*arraiki*)

Ez dut axolarik.

**XALBAT:** (*Amatxiri*)

Emotzu betherik.

**AMATXI — MAIDER — KATIXA:**

Betherik? Betherik?

**XALBAT:**

Emotzu betherik:  
Duzu ikhusiko,  
Ehunka husteko,  
Ez dela holako  
Bertze langillerik  
Hunat agertuko.

**XANXIÑ:** (*narrioki*)

Ekatzu betherik:  
Duzu ikhusiko,  
Ehunka husteko,  
Xanxiñ bezalako  
Bertze langillerik  
Ez dela hunako.

**BATIAN DENEK:**

Emanez betherik,  
Dugu ikhusiko,  
Ehunka husteko,  
Xanxiñ bezalako  
Bertze langillerik  
Ez dela hunako.

**AMATXI:**

Nun ikhus holako  
Ez axolaturik?

**MAIDER:**

Ez da gizon gaixtua.

**KATIXA:**

Gazte danik haurtua.

**AMATXI:**

Zer? Ez axolatua?  
Bañan eskerrak daizkot bihurtzen

Haurtasun hortaz egiñagatik.  
Ezpalitz hola izan haurretik  
Haur maitetto hau neria ez baitzen.

**DENEK:**

Arrazoñekiñ ditu bihurtzen  
Bere eskerrak haur handi horri,  
Ezpalitz goizik ergel erori  
Amatxirena Maider ez baitzen.

**XANXIÑ:**

Arrazoñekiñ ditu bihurtzen  
Bere eskerrak Xanxiñ gaizuari:  
Ezpalitz goizik ergel erori  
Amatxirena, Maider ez baitzen.

**PATZIKU:** (*gizoneri*) Guazen gure hamarrekotarat

**XALBAT:** Egizue ni gabe. Banua aldarerat ene  
gizonekiñ.

**PATZIKU:** (*Xanxiñi*) Hi, beraz.

**XANXIÑ:** Bardiñ. Atsegiñ egiteko.

**AMATXI:** (*harritua*) Nola? Arras sorrajo zare  
beraz?

**PATZIKU:** (*hirriz*) Aski... Aski... Hua hire botilleta-  
rat. Emaztekiak eta Xalbaten langilliak  
aldarerat doazi.

**KLARA:** Bazatoz, Maider?

*Katixa etxian sartzen dute.*

**MAIDER:** Guazen.

## **ZAZPIGARREN AGERRALDIA**

Amatxi — Xalbat — Xanxiñ

*Gibelian gizonak. — Aldarian emaztekiak, nexkatxak, haurrak eta Xalbaten laur langille.*

**XALBAT:** Banua lanerat.

**AMATXI:** (*Xanxiñi*) Eta zu?

**XANXIÑ:** Bai... bai... Ez ditake zurekiñ hatsik ere har! Of!

*(Sartzen da.)*

## **ZORTZIGARREN AGERRALDIA**

Amatxi — Xalbat — Maider (*aldaretik*)

**AMATXI:** Zer Kurutzia?

**XALBAT:** Botazazu lurrerat.



**AMATXI:** (*hirriz*) Lagunduko nauzu alxatzen...

**XALBAT:** Nik?

**AMATXI:** Ba. Orai, Maider handitua daukat. Agindu dautzutan bezala, orai duela sei urthe, harena aldaratu eta niri asma dezaket.

**XALBAT:** (*harritua*) Zuri?

**AMATXI:** (*hirri borxatu batekiñ*) Zertan zaude? Ahantzi dukezu nik agindua?

**XALBAT:** Ahantzi? Ahantzi?

**MAIDER:** (*zulubitik*) Xalbat! Zato! Zure beharra banuke lore zenbeiten ezartzeko. — Ez nai-teke hel... Xalbat (*Amatxiri*) Diozunaz, gero mintzatuko gare, Gaxuxa. (*Badua.*)

**AMATXI:** Zer derabill goguan? Bozkarioak nahasi othe dio burua?

*Burua dudetan higitzen du harat eta hunat eta etxian sartzen da. Sukaldian ageri da baten eta bertziaren manatzen. Neskatuak iragaiten dire, eskuak baxera garbiz bethe-rik. Bertze sehi batzuek botilla betiak ematen dituzte mahañ baten gañian.*

# BEDERATZIGARREN AGERRALDIA

Maider — Xalbat

Emaztiak eta nexkatxak hari dire soka arri-matzen paxetetan. Xalbaten langilliek paxetak landatzen dituzte, haurrek belhar eta lore hostuak bidian metatzen dituztelarik.

**MAIDER:** *(ezpel soka bat Xalbati ematen diolarik)*  
*Kantatzen du.*

Jautsazazu ezpel hori  
Oihalaren gañ gañetik.

**XALBAT:** *(zurubirat igaiten delarik ezpela harturik)*  
Bai. *(Itzatzen du ezpela.)*

**MAIDER:**  
Abantzu naiz erori  
Astian zure zurubitik.

**XALBAT:** *(alegeraki)*  
Zu, Maider, gure lanetan?

**MAIDER:**  
Zertako ez, batzuetan?

*(Zangotan duen otharre batetik helarazten diozka Xalbatari arrosa xuriak.)*

**MAIDER:**

Orai, lau arrosa xuri.

**XALBAT:** *(arrosak ixkilimekiñ lotzen dituelarik)*

Ezpel ferde, oihal gorri,  
Arrosek Maider iduri.

**MAIDER:** *(hirriz)*

Ikhasi duzu koplaka?

*(arrosa hañitz, gorri eta xuri, ematen diozka)*

**XALBAT:**

Xo! Arrosak bat banazka.

**MAIDER:** *(urhundik lorien ederbideari behatzen duelarik)*

Urhe, gorri, xuri, ferde!

**XALBAT:**

Maider heltzen bada, gorde...

**MAIDER:** *(boza eziturik, ematen diozka arrosa gorriak)*

Gorri-gorriak gañ hartan.

**XALBAT:**

Badituzu ezpañetan  
Hauk bezain kolore dunak.

**MAIDER:** *(hirri ttiki batekiñ)*

Nun dabillza erostunak?

**XALBAT:** *(zaldiz zurubiaren gañian)*

Ixtaklok bada bat hemen

**MAIDER:** *(boza oraño ezituagoa)*

Egia ezpada: Amen!

**XALBAT:** *(zurubitik jausten da baratxe)*

Eta erran baut egia?

*Maiderek burua aphaltzen du deus ihardetsi gabe. Xalbatek azpitik behatzen diozka begiak.*

**XALBAT:**

Erakuts eni begia!...

*Maiderek eztiki behatzen dio eta, eskua pixka bat dardaretan, bere golxhotik khen-du eta, eskaintzen dio arrosa bat Xalbati.*

**MAIDER:**

Hor duzu azken arrosa.

**XALBAT:**

Maider ez hunenzat lotsa...

*(Ixiltze labor bat.)*

**XALBAT:**

Arrosa hunen tokia

Ez da bertze kiñ, maitia...

Etsizeko da, nun nahi zuk bilduaren uztia:

Hobe zaut daukan hazia  
Heze delarik bilzia.

**MAIDER:**

Mintzo zitzaizkit garbiki,  
Bañan enetzat ez aski.  
Zer sentimendu sorthu den zure ariman...  
banaki.  
Aithor nautzuke hobeki  
Nerian zoin zaitan ibillki.

**XALBAT:**

Ezda hitz aski argirik  
Zuretzat berex nukenik  
(*eskua bihotzaren gañian*)  
Gorri zintazke, beriala, hunek diona entzu-  
nik...  
Jakiñen duzu lehenik  
Zure bihotzak erranik.

**MAIDER:**

Iduritzen zait naizela  
Xori xoro bat bezala.  
Josten ditutzun hitzetan ez utz holako itza-  
la...  
Siñetsiko dut berzela  
Doi doia maite nauzula.

*(Xalbatek eskuak hartzen diozka. Arrosa esku tinkatuen artian dago xutik.)*

**XALBAT:**

Ba maite zaitut, ene arrosa...

**MAIDER:** *(bere burua Xalbaten besoari utzia)*

Orai naiz, Xalbat, orai urosa!

*Muslariiek denbora hortan partida akabatu dute. Urhuntzen dire beha zauzin gizonak. Patzikuk sosak billtzen ditu eta oihu egiten Amatxiri.*

**PATZIKU:**

Amatxi!... Zato!

**AMATXI:** *(barnetik)*

Berehala.

## **HAMARGARREN AGERRALDIA**

Berak — Amatxi

*Amatxi atheratzen da etxetik zalu, bañan ikhusten dituenian bi amorosak, beren amodioan galduak, eziñ garhaituzko oñhazi batek korropillatzen dio bihotza. Izkiritu*

*izigarri bat egiten du eta bortxatua da mahañ bati atxikitzerat ez lurrerat gateko.*

**AMATXI:** *(izkiritu bat) Ah!...*

*Patziku xutitzen da eta, xutitziarekiñ, Xalbat eta Maider ikhusten ditu eskuak gurutzaturik.*

**PATZIKU:** *To! To! To!*

*Maiderek ere entzun du izkiritua eta behatzen du nundik heldu den. Orduan ikhusten du Amatxi, xuri-xuria.*

**MAIDER:** *(lasterka Amatxirenganat) Amatxi! Amatxi! Zer duzu? Osaba zato!...*

*Patziku hurbiltzen da. Amatxi flakatus bezala dago. Maider, izitua, oihuka hari da barnekueri.*

*Ama! Maria! Zatozte!*

*Neskatuak heltzen dire, gero Katixa; azkenik Xanxiñ*

**AMATXI:** *(atzartzen balitz bezala) Zer da? Zer gerthatu da?*

**MAIDER:** *(loriatua) Amatxi gaixua, sofritzen zinduen?*

**AMATXI:** (*boz gohor batez*) Nik sofritaen? Ah! ah!  
Sofri dezaket bada nik? Emazte othe naiz  
sofritzeko?

**MAIDER:** (*Amatxi besarkaturik*) Amatxi, koloriak  
gan zauzkitzu...

**AMATXI:** (*borthizki, bere alabatxiaren besotarik  
atheratu eta*) Utz nezazu! (*Sehieri*): Eta  
zuek zer hari zaizte? Ez duzue lanik aski  
ditudaneri ohartu gabe? Zuazte zuen egite-  
koerat!

*Xanxiñ agertzen da, dabantal urdiñ bat  
soñian eta botilla erdi bat eskuan, ezpañak  
xukatzen dituelarik.*

**AMATXI:** (*Xanxiñi*) Athera zaite ene bixtatik! Boti-  
llak utzatzu eta zuazi norat nahi.

*Xanxiñek beriala, bere dabantala khendurik,  
hartzen ditu igandetako gañekua eta gap-  
helua ezkaatzian, eta badua, athorra  
mahunka has, elizako alderat, bidian ira-  
gaiten direnekiñ. Katixa, ixilik sartzen da  
etxian.*

**AMATXI:** (*Patzikuri*) Zenbat botilla ditutzue?

**PATZIKU:** Lau, eta lau kafe...

**AMATXI:** Hiru libera eta lau sos.



**PATXIKU:** (sosak ematiarekiñ) Oritzu.

*Amatxi, dabantalaren sakolan sosak sarthu eta, sartzerat dua. Bidian, Maiderekk, nigarrak begietan, geldiazten du.*

**MAIDER:** (eztiki) Amatxi...

**AMATXI:** Maltzurra!

*(Sartzen da.)*

## HAMEKAGARREN AGERRALDIA

Maidere — Patziku

*Agerraldi hau eta bertzia iragaiten direlarik, bethi bidetik elizako alderat baduazi jendiak, igandetako jauntzkuretan pro sioneko gazteria galtza zuri, gerriko se; da, athorra loratuetan batzuek ere badituzte buruko lore dunak galtzetan xilinxak etc.*

**MAIDER:** (nigarrez) Maltzurra? Zer maltzurkeria egin diot bada nik, osaba?

**PATZIKU:** (trufaz) Bere arnorat ura eman, dudarik gabe.

**MAIDER:** Zerbeit badu. Jakiñ nahi dut.

**PATZIKU:** Ez beldurrik izan. Aski goizik jakiñen duzu.

**MAIDER:** Mirikua behar balu, osaba?

**PATZIKU:** (*hirriz*) Beharrago luke zurgina!

**MAIDER:** (*iziturik*) O! Kutxaren egiteko? Ez da hortan!...

**PATZIKU:** Kutxa ba... Bizien kutxa: Buhurdia mihi-siekiñ.

**MAIDER:** Etzaitela trufa, osaba. Egiazki pairatzen du, Amatzik, eta, preseskí ni hoin dohatsu naizenian... Zertako hori?

**PATZIKU:**

Urhia eta zoriona

Behar dire ongi zaindu:

Batek beretzen duena

Bertziari hartzen omen du.

Ez baiditazke gizonak

Aberats eta dohatsu

Izan denak...

Maidar! Maidar! Egiñ kasu,

Orai eta sarri,

Egungo zorionari.

**MAIDER:**

Izituko naiz, osaba...

**PATZIKU:**

Beharba!

Zurekiñ atxik dukezu...

Hoinbertze dohañ ditutzu:

Gazte, pollit, maitagarri...

**MAIDER:** *(osabaren erraneri asmatzen duelarik)*

Kasu, orai eta sarri,

Egungo zorionari...

Behar dire ongi zaindu

Urhia eta zoriona...

Batek beretzen duena

Bertzeri hartzen omen du...

*(osabari)*

Hartu othe dut norbeiti?

**PATZIKUK:** *(ihardetsirik ez eman nahiz)*

Bihotz bero, bisai ezti...

Hoinbertze dohañ ditutzu:

Zurekiñ atxik dukezu!...

**MAIDER:**

Ez baiditazke gizonak

Aberats eta dohatsu

Izan denak...

Maidar! Maidar! egiñ kasu...

*(iziturik)*

Ene zoriona  
Hill nahi duena  
Hor nunbeit dabill...  
Hemendik hurbill?

**PATZIKU:** (*berritz*)

Urhia eta zoriona etc.

**MAIDER:** (*batian*)

Ene zoriona

Beharko dut ongi zaindu (etc.)

*Biek bardiñ kantatzen dute eta iragaiten dire  
hejako alderat; Xalbat biderat heltzen zaio-  
te.*

## **HAMABIGARREN AGERRALDIA**

Patziku — Maider — Xalbat

**XALBAT:** Amatzik zer zuen?

**MAIDER:** Maltzurra erran daut!

**XALBAT:** Zuri?

**PATZIKU:** Bo! Iraganen zaio duen hisia!...

*Ezkillak jotzen hasi dire. Teatrian diren jende  
guziak baduazi elizarat. Maider aldaratzen*

*da, harrasiaren gañian utzi zuen mantaliñaren hartzeko.*

**XALBAT:** *(Patzikuri baratxe)* Ez da flakatu?

**PATZIKU:** Bai! bai! Antolaatzik gauzak bezperak erran arte. Bertzenaz, gaizki zuak, muthill, hire hauzia...

*Maider hurbilldu da.*

**PATZIKU:** Gaurgoiti, jaun erretorak bere xantria berantetsia duke. Kexa gaitzen. *(Badua aitzina.)*

**MAIDER:** Gurekiñ zatoz, Xalbat?

**XALBAT:** *(baratxe)* Ez, ene maite maitia. *(Gorago)* Hemengo lanak behar ditut akhabatu.

*Maider badua, kongregazioneko nexkatxekiñ.*  
— *Ez dire zenbeit hastapeneko emazteki eta Xalbaten langilliak baizik gelditzen.*

## **HAMAHIRURGAREN AGERRALDIA**

Zenbeit emazteki — Xalbaten langilliak — Xalbat

**XALBAT:** (*langillieri*) Zuazte zuek ere bezperetarat. Proasioniarekiñ itzuliko zaizte eta hemen baratuko, aldariaren urratzeko eta pusken sartzeko.

**LANGILLE BATEK:** Ongi da.  
(*Baduazi langilliak.*)

## HAMALAUARGARREN AGERRALDIA

Emaztekiak — Xalbat

*Orai, emaztekiak hari dire ihi eta lore barrajatzten bidiaren gañian. Biek hedatzen dute oihal hertxi xuri bat. Azkenik, mihisiak bidiaren barneko aldetik sokheri estekatzten. Bidia, orai, arras gordia da eta emaztekiak ez dire ageri.*

**XALBAT:** (*bakharrik*)

*Xalbatek duda liphar bat badu. Gero harra-siaren gañetik jauzi egiten du eta sartzen da ostatuko barrokan, diolarik:  
Guazen aintziñat! (*oihu*) Gaxuxa!*

# HAMABORTZGARREN AGERRALDIA

Xalbat — Amatxi

*Amatxi etxetik atheratzen da baratxe, itxura hitxian. Itzultzen da ezkaatzian, begien xukatzeke, Xalbatek ikhusten ez duelarik, zeren, Amatxi agertziarekiñ, Xalbatek, ahalkez, bere burua itzuli baitu.*

**AMATXI:** *(boz idor batez)* Zer nahi duzu?

**XALBAT:** Badakizu orai zertako ez dautzutan aix-tian ihardetsi. Ez nuen uste aspaldiko erra-netaz orhoitzen ziñela.

**AMATXI:** Ez gezurrik... Eztut nik deus ahanzten eta ene hitza bethi eta nor nahirenzat atxi-ki dut. Ez nuen, nik, uste, Xalbat, kanbiako-rra ziñela.

**XALBAT:** Kanbiakorra? Amatxi...

**AMATXI:** Amatxi?... Ene zaharzeko ematen dautazu izen goiti hori? Eztut nahi enzun! Ez naiz gihiago nihoren Amatxi. Zuk ebatsi dautzatzu ene amodioa eta ene alabatxia. Hau atxikazu, bertzia zangopian ibilli eta.

**XALBAT:** Zoin garrazki minzo zaren! Barkhamendu galdetzen dauzut. Uste izan dut maite zintudala. Gaztiak engana ditazke. Gero ezagutu dut zuretzat naukan sentimendua eta amodioa bia zirela. Zure alabatxia ikhusten nuen egun guziz handitzen eta edertzen: Haurra zelarik maitagarri, nexkatxa egiñ eta maitagarriago! Zu ezagutzia-rekiñ Maider ezagutu dut, zuk maitatziarekiñ Maider, nik ere maitatu dut eta... pixkaka... pixkaka... ikhustiarekiñ Maiderrek ama bat bezala maite zintuela, zu, iduritu zait eni ere — nahiz abantzu zure adiña dutan — ama bat bezala behar zintudala maitatu. Barkhaguzu bieri. Ez dugu deus egiñ amodioaren sorraazteko!... Bera ethorri zauku.

*Kantatzen du.*

Amodioa sartu da gutan  
Uda berriko gau ez tietan  
Zure gerizan gindauzilarik...  
Egunez egun, guk jakiñ gabe,  
Gathe lehena porroskaturik,  
Gure bihotzez egiñ da jabe...



Ene ahotik etzen oraño  
Aingeru horren beharriraño  
Erre ziozaken hitzik alxatu...  
Eta astian, eztakit nola,  
Gure eskuak dire tinkatu  
Amodioak nahi bezala.

**AMATXI:**

Ez aitzakirik enetzat billa...  
Hitz eztitzeko zare abilla.  
Nik ere ditut zure ahotik  
Aspaldi enzun...

**XALBAT:**

Gaxuxa!

**AMATXI:**

Hatik!

Ez naiz zuk uste  
Duzun emazte  
Trufatzen dena...

**XALBAT:**

Bañan...

**AMATXI:**

Ez zaizte

Ostatu huntan biak sartuko:

Ez zu, ez hura!

**XALBAT:**

Ez dut holako  
Nahirik izan. Bien hazteko  
Nihau azki naiz. Ez! Diruari  
Behatu banu, etzait iduri  
Maiderrenganat ganen nintzala.

**AMATXI:**

Oh! Xalbat! Xalbat! Bihotz ahula!  
*Amatxik «Ez aitzakirik enetzat billa» kanta-  
tzen duenian, ezkillak berritz hasten dire,  
proasionia atheratzen delakotz elizatik.*

**XALBAT:**

Amodioa, guk jakiñ gabe,  
Gure bihotzez egiñ da jabe.

**AMATXI:**

Ez aitzakirik enetzat billa...  
Hitz eztitzeko zare abilla.

**XALBAT:**

Ene ahotik etzen oraño  
Aingeru horren beharriraño  
Erre ziozaken hitzik alxatu.  
Eta, astian, eztakit nola,  
Gure eskuak dire tinkatu

Amodioak nahi bezala.

**AMATXI:**

Zure ahotik etzen oraño

O Xalbat! ene beharriraño

Beizik holako hitzik alxatu...

Eta astian, ikhusiz nola

Zuen eskuak ziren tinkatu

Hor flakatu naiz haur bat bezala.

*Bere burua phausatzen du paxet baten kontra eta nigar egiten du.*

## **HAMASEIGARREN AGERRALDIA**

Orai enzuten dire teatriaren gañian proasione-ko soñulariak: Trunpeta, atabal eta xiro-lak. Gero Gizonak.

**GIZONAK:** *(hastapeneko kantika)*

Yesus on illki zauku aldare barnetik etc.

**DENEK:**

Zer mirakullua! etc.

*Soñulariak teatrian iragaiten dire, nexka tti-kien ondotik. Mihisien gañetik ageri dire banderak, gizon aphainduen harmak, noi-*

*zian behiñ buruko loredun bat edo bertze, atabal nausiaren makhilla. Gero kongreganisten bandera xuria, agertokiaren erdian baratuko dena arrosa hostuak airian, ageri ez diren hurrek bothatzen dituztenak; azkenik, pabillunaren lumak, baidoazi hejaren gibeleraño eta han baratzen.*

**NEXKATXEK:**

Heda oihal xuriak bide bazterretan.  
Gure gorphutzak eman falda xurietan.  
Artik jainko jaunari lore xurienak  
Hoin xuri egiñ detzan gizonen arimak.  
(Denek) Zer mirakullua! (etc.)

*Nexkatxek kantatzen dutelarik, Xalbat hurbilldu da proasionerat, kongregazioneko banderari buruz. Mihisiak aldaratzen ditu pixka bat eta Maider, banderaren alxatzallia, artetik ageri da.*

*Benedizioneko xilinxak egiten du bere soñuariña. Denak belhaunikatzen dire, eta gero xutitzen.*

**PATZIKU:** (Kantatzen du)  
Zer mirakullua! etc.

*Denak jarraikitzen zaizko eta proasionia aintziñat doa.*

## **HAMAZAZPIGARREN AGERRALDIA**

*Xalbaten langilliak sartzen dire eta nexkatxak gan orduko, aintziñeko mihisiak khenetzen dituzte, emaztekiek lagundurik. Orain bidia ageri da. Proasionia ezaun da, urrunetzen delarik. Elizako bidetik sartzen da: Lehenik haurrak, gero nexkatxak, gero gizon aphainduak, gero arrosa artikhitzalliak; haukien bi sahetsetarik gizon aphainduak oraño. Ezkillak bethi hari dire, eta hola estalkia jautsi arte.*

*Urrunxko gizonak kantatzen dute.*

*Jesus ona illki da (etc.)*

*Urrunxago Nexkatxek:*

*Heda oihal xuriak (etc.)*

*Aphezak eta pabilluna agertu gabe, jausten da agertokiaren estalkia.*

**ZATHI LEHENAREN BURURANTZA**

# **BIGARREN ZATHIA**

Toki berian eta oren baten buruan.

## **LEHEN AGERRALDIA**

Xalbaten langilliak eta Xalbatek aldaria barraiatzen dute eta phazotak atheratzen dituzte. Emaztekiek mihisiak billzen eta malgutzen. Untziak eta aphaindurak beren etxetarat erematen. Ostatuko sehiek, aldiz, dafallak hedatzen dituzte gibelego mahañen gañian eta, exkerretarik, asto batzuen gañian, mulxatzen botilla arno eta limonadak.

Amatxi, arras ilhundua, gemen handirik gabe hari da sehien manatzen, sukaldeko leiho-tik, eta zalu sartzen da.

### **KANTARIAK:**

Unzi, belus, oihal fiñak,  
Lore zillarrez egiñak;

Ogi buru, mahats mulkho  
Aldare huntan zauztenak  
Jainkuaren ohoratzeko,...  
Orai, lehengo kutxetan  
Sarhuko zaizte betbetan,  
Eta, egun beziñ frexko,  
Bertze besta berrietan  
Zaizte argirat illkiko.  
Unzi, belus, oihal fiñak,  
Lore zillarez egiñak,  
Ogi buru, mahats mulkho,  
Zauzte orai beziñ frexko  
Heldu den urtheko.

*Urruntzen dire. Bi emazte eta bi langille badaudez. Xalbat jarraikitzen da bere bertze gizoneri eta hejan sartzen dituzte aldare eta phazotak.*

*Amatxi agertzen da ezkaatzeko athian.*

## **BIGARREN AGERRALDIA**

Berak — Amatxi

**LEHEN EMAZTIAK:**

Amatxi? Zure untziak  
Norako diren... errazu.

**AMATXI:**

Untzirik ez dut.

**BIGARREN EMAZTIAK:**

Behazu.

Aldarian diren guziak  
Zuk eskañiak ditutzu.

**LEHEN LANGILLIA:**

To! Amatxi ez orhoitzen.

**LEHEN EMAZTIAK:**

Etzajo ba maiz gerthatzen.

**AMATXI:** *(ez horturik)*

Ezar atzu sellaruan.

**BIGARREN EMAZTIAK:** *(harriturik)*

Hor bai! Nor nahik hausteko!

**AMATXI:** *(zainhertsu)*

Nahi dukezun xokhuan  
Ez naiz orai hortarako...

**LEHEN EMAZTIAK:** *(etxia erakusten diolarik)*

Hor ongi ditazke naski...

**AMATXI:** *(nardatua)*

Jainkuatz! Jainkuatz! Jainkuatz! Aski!...



*Amatxi gan da, asmatsuturik atheladaraño  
eta ez da handik mugitzen.*

## **HIRURGARREN AGERRALDIA**

Berak — Bañan Amatxi ixilik eta Xalbaten langi-  
lliak,  
ostatuko sehiekiñ eta emaztiekiñ araldatuak.

### **EMAZTIAK:** (*aphal*)

Izan behar du zerbeit goguan  
Unzi haukien arbujuatzeko.  
Etzen agertu nihoiz holako  
Trenpu xoruan.

### **GIZONAK:** (*eskarnioz*)

Baditazkela gure munduan,  
Dirua lekhat, gauzarik asko  
Indar hobenen atzarrazteko  
Duke buruan.

*Denek gizonen koplak errepikatzen dute.  
Amatxi aitziañatzen da eta malzurki lehen  
koplako bortz phersu azkenak kantatzen  
dituzte.*

Unzi, belus, oihal fiñak etc.

*Amatxi begiz jarraikitzen zajote, aldare alde-  
rat doazilarik, eta, batere ohartu gabe,  
badoha berritz ere athaladaren alderat.*

## **LAURGARREN AGERRALDIA**

Maidar, nexkatxak eta nexkak bezperetarik  
itzultzen dire.

Berak — Maidar — Klara — nexkatxak.

### **KLARA:**

Zer begitartia daukazun, Maidar.  
Besta egunian etzauku eder  
Gure lagunik maitatuenak  
Ilhun detzan gau illhunak.

### **MAIDER:** *(hirri erkhaitz batekiñ)*

Ez naiz ni, orai, aixtian nintzana?

### **KLARA:**

Argi eta legun, kantutto batekiñ  
Nola doan urhandia,  
Zuk ere zinduen, arrai eta ariñ,  
Jarraiten zure bidia...

Bañan, zimurtzeko harek aski baitu  
Iñare baten hegala,  
Xori beltz bat deia zutan pulunpatu  
Uraren barnian bezala?

**MAIDER:** (*hunkitua*)

Ez: Xori xuri bat hasi da kantatzen  
Kaiola hetsi batian.  
Haren bozaz hurbill zitakenik etzen  
Oraño gure artian.  
Eta behazue nahasi ez naizen  
Xori horren enzutian.

**NEXKATXAK:**

Idekazu kaiola,  
Xori hoi gan dadila  
Lehen zagon tokirat.  
Holako boz ederrik  
Etzazula zutarik  
Berritz utz hurbilzerat...  
Gazteriak behardu  
Hirriz burua galdu,  
Sekulan atsekabez:  
Beraz kanta dezagun  
Eta ez gorri egun  
Bi begiak nigarrez.

**KLARA:**

Laster hor dire soñulariak.

**NEXKATXAK:**

Egungo zaja xuriak

Etxian utziren ditugu.

Eta, aldatu orduko,

Brixt batez gare hunako.

Biba gu! Maider! Biba gu! —

*Maiderek eztiki behatzen diotelarik, eskuz esku ematen dire, nexkatxak, eta itzulika inguratzen dute, kantatzen dutelarik.*

Biba gu! Maider! Biba gu! —

*Nexkatxak urruntzen dire. Emaztiak eta Xalbaten langilliak aldareko azken puskek deramazkate. Xalbat agertu da doi doia hejako athian eta Maiderrri behatzen dio; bañan Amatxi itzuli baitzen, nexkatxak dantzan hari zirelarik, Xalbat gordetu da.*

**BORTZGARREN AGERRALDIA**

Amatxi — Maider

*Maidar, etxerat sartzeko hiñian. Amatxi aintziñatu da eta begien erdirat behatzen dio bere alabatxiari.*

**MAIDER:** (*izituxia*) Asarre zare óraño, Amatxi?

**AMATXI:** Badut zeren. Hola eskolatu zaitut bada nik?

**MAIDER:** Zer nahi duzu erran?

**AMATXI:** Hau kopeta!

**MAIDER:** Zertako mintzo zare hoin garrazki? Bazindaki zer bihotzmiñ deramatan proaisionerat!

**AMATXI:** Ez othe zaut aingeru bat hari? Uste duzu, ziñez, begirik eta zentzurik eztudala? Noiztik, zure amaren eta nere ixilik. Xalbattek burua nahasten edo itzultzen dauzu?

**MAIDER:** (*harritua*) Ikhusi gaitutzu?

**AMATXI:** Etzen gaitz! Ahalkagarriak zuek! Denen bixtan!

**MAIDER:** Gaizki egiten ginuen?

**AMATXI:** Etzazula bada bildotx itxura hori har enekiñ? Eztakizu neskeri zillegi etzaiotela mutillen solas eztieri beharriaren ematia burasoen aitziñian baizik? Eta zu?... Zer itsuskeria!

**MAIDER:** (*eztiki*) Nork asma zezaken zeletatzallearik bazitakela?

**AMATXI:** (*muthiriki*) Etzaituztet zeletatu! Ausartak zuek: Etzaizte zeletatzekuak! Aski zabalik zuen bihotzak hedatzen ditudzue... O!... Orain arte, zenbeit aldiz astirokiago ahantzi ahal zaizte holako hitzketa galgarrietan!... Nola erastatu naukezuen!...

**MAIDER:** O! O! Zu, Amatxi? Hoinbertze maite izaki eta nik irriztatu behar zintudan... eta zergatik? Egia da Xalbatek ez dautala hitzik aipatu egun arte... Eta... eztaikit nola menturatu ahal den, astian errandauzkitanen erraterat. Eta nik nola ihardetsi diot? Siñets nezazu, Amatxi maitia: Garhait etzitaken indar gorde batek bat bertziarengat egotzi gaitu...

**AMATXI:** (*samiñki*) Hola? Lipar batez? Gizon gazte baten hatsak berak xoratu zaitu? Ez eni holakarik saka! Aspaldian balakatua eta liluratua zare, xorittua! —

**MAIDER:** (*historik*) Zein dohakabe naizen zure damuztatzi az egite ustekabezko horrengatik: Jakiterat gaitzetsiko zinduela, ez nituen

diozkatzun beharriak idekiko Xalbatez zinituen laudorioeri.

**AMATXI:** Nik?

**MAIDER:** Nola haur erorkor eta herbal bat egon zitaken, zuk hoinbertze prezatzen zindue-na prezatu gabe?

*Kantatzen du.*

Etzen zuretzat bertze gazterik

Herri guzian,

Xalbat zurgina bezalakorik!

Haren sortzian

Ausarki zaizkon aztiak eman

Dohañ leherra:

Beso hazkarra

Lanaren kharra

Gorphuz ederra...

Etzitzaioken hutsik hatzeman!...

Eta ni, orai, holako

Solasak utzi orduko

Beharritik bihotzerat

Bat banazka erorzerat...

Othoi! Amatxi zertako

Hoinbertze higuñtzen nauzu?

*(eskuak harturik)*

Othoi! Othoi! Erradazu!...

*Amatxik borthizki urruntzen du. Maider dago bere tokian, irainztatua.*

**AMATXI:** *(borthizkiago)*

Ixilik zaude, malzurra.

Iduri eta elderra

Zure ahottuak gezurra

Bethi danik badario.

Hitzetan amultsuenak,

Lausengutan gozoenak,

Hirrietan eztienak

Etzauzkitzue kario...

Bañan badakit oraitik

Zer pekatu bihotzetik

Behar nuken, zuengatik,

Deus bazindute balio...

**MAIDER:**

Prezitzen nauzu itsura...

**AMATXI:**

Malzurra! Maider! Malzurra!

**MAIDER:** *(nigarrez)*

Amatxi, behazu

Ene nigarren gezurra!



*Xalbatek, nigarrez ikhusten duenian, sartzen da.*

## **SEIGARREN AGERRALDIA**

Amatxi — Maider — Xalbat — Katixa (*leihuan*)

**XALBAT:**

Amatxi, barkha ezozu.

**AMATXI:**

Zertan sartzen zare zu?

**XALBAT:**

Ni naiteke hobendun!

**KATIXA:**

Gaxuxa? Zer dun? Zer dun?

Bakia gan da hemendik...

Zerk ganazazidu?...

**MAIDER:** (*eztiki*)

Nik! —

**XALBAT:**

Ez zuk eta ez nik

Ez dugu hobenik...

*Berritz kantatzen du lehen zathi hamaborzt-  
garren agerraldiko kantua.*  
Amodioa sarthu da gutan  
Uda berriko gau ez tietan.

**XALBAT ETA MAIDER:**

Zure gerizan gindauzilarik.  
Egunez egun, guk jakiñ gabe,  
Gathe lehena porroskaturik  
Gure bihotzez egiñ da jabe...

**AMATXI:** (*Maiderrri*)

Amodioa agiñtzen zautan  
Jaun hunek berak sei urthe huntan  
Ene gerizan zindauztelarik...  
Egunez egun, nik jakiñ gabe,  
Gathe lehena porroskaturik  
Zure bihotzaz egiñ da jabe.  
*Hiruek batian errepikatzen dute.*

**AMATXI:** (*fuliatsu*)

Amodioa agiñtzen zautan.  
Jaun hunek berak sei urthe hautan!...

**MAIDER:** (*harritua*)

O! Xalbat! Xalbat! Zer egiñ duzu?

**AMATXI:**

Zuri bezala hitz eder batzu

Hoinbertze urthez erran onduan,  
Hori egiñ daut. Etzen munduan  
Zuetaz kanpo maita nukenik...  
Eta zuetaz behar dut ba, nik,  
Hola pairatu?

**MAIDER:**

Barkhatu.

Nik ez nakien.

*Patziku eta Xanxiñ sartzen dire.*

**AMATXI:**

Gezurti txarra!

## **ZAZPIGARREN AGERRALDIA**

Berak — Patziku — Xanxiñ

**XANXIÑ:** (*kantaz*)

Zer derabillkate hor?

**PATZIKU:**

Uharra!...

**MAIDER:** (*bere osabarenganat hurbildurik*)

Badakit orai zertako

Izitu naizen osaba!

**XANXIÑ:**

Itsuskeri bat iñ dako  
Haur hunek, huni, beharba?  
Zer da ba, Maider? Holako  
Amatxi dautzutanian  
Berezi sor egunian  
Etzauzke ba belhauniko  
Ezpañik ideki gabe?

*(Katixa erakustiarekiñ.)*

Hau laneko ahalgabe...

**PATZIKU:** *(hitza hausten diolarik)*

Hi berritz lanak unhatzen...

**XANXIÑ:** *(ezpalu enzun bezala)*

Hola bauzu sariztatzen!...

**PATZIKU:**

Utzak hortan, Larru, hire predikua.

**XALBAT:** *(hastiatuki)*

Ziñez... eman zaio!...

**PATZIKU:**

Ez duk hau lekhoa!

**AMATXI:** *(Patzikuri)*

Ematen diozu, Maiderri eskua?

**PATZIKU:**

Ez batek, ez bertziak ez duzue hutsik:

Bihotzen heztallia —haur itsu bat omen—  
Berriki, hegalka, phausatu da hemen.  
Zer egiñ zitaken hari buruz? Deusik.  
Bakharrik aski da denen itzulzeko:  
Semetxi, osaba, illoba, amatxi,  
Adixkide, koñat, anai, alabatxi...  
Denak on baitzaizko.

*(Amatxiri)*

Ez amor eman mendekuari:  
Haur itsua hor hirriz da hari!...

**AMATXI:** *(saminki)* Hoin botheretsua delakotz,  
ezniozaken erran haur itsuari kanporat gan  
zadiela! — Bañan etxeko andre bainaiz ni  
hemen, eztut onhesten jaun anderetto  
haukiek bethe dezaten ene egoitza beren  
zorionaz. Har bezate beren amodioarenzat  
bertze lekhukorik.

**MAIDER:** *(othoiztuz)* Amatxi! Amatxi!

**AMATXI:** *(idorki)* Aski zinkuriñ! Lanian badakizu.  
Zure erhiek irabaziko dauzkitzute behar  
ditutzunak.

**XANXIÑ:** Eta gu? Katixa eta ni?

**AMATXI:** Katixa alabarekiñ... Zu, giza gaizua lane-rat. Xalbatek zur karraiatzalle bezala ahal duke zure doia.

**XANXIÑ:** Ez dut baitezpada lan hañitz behar denboraren iragaiteko.

**PATZIKU:** (*hirriz*) Hori!...

**XANXIÑ:** Horra, Maider, zer dakarkaten zure balentriek!

**XALBAT:** Gure ezteiak aitzinatuko ditugu, Maider.

**MAIDERREK:** (*gogoetan baitzagon bertziak mintzo zirelarik*) bihotz jauzi bat badu Amatxiren alde.

**MAIDER:** Etzaitut beraz ikhusiko, Amatxi?

**AMATXI:** Ez zuk eta ez bertzek. Ostatuaren atxikitzekeo kharra gan zait. Denak salduko ditut eta ganen naiz, han bakharrik bizitzeko, xokho galdu batetarat.

**PATZIKU:** Amatxi! Amatxi! Etzaitela mendeka!

**AMATXI:** (*izkiritu dolorotsu batekiñ*) Zer egiñ behar dut bada? Denen asetzeko baizik ez nintzen! Nihork ez nau maitatu!

**MAIDER:** Nik! Nik! Eztut nahi paira dezazun. Zurekiñ bizi nahi dut, eta Xalbatek trabatzen bazaitu, Xalbat utziko dut zurekiñ egoteko!

**XALBAT:** (*samiñki*) Ez bide da zure amodioa beronenetik! Zer? Zuri jarraikitzeke utzi ditut Amatxi eta Amatxiren ontasunak eta hola-ko eskerrak bihurtzen dauzkidatzu?

**MAIDER:** (*xoratua*) Xalbat! Xalbat! Ergeltzen hari naiz! Zu ala Amatxi: nor behex dezaket? Eta, orai, biek enetzat dituzte beren laidua! Ama! Ama! Zuk bederen badakizu Maiderekin ezteula ixendurarik.

*Badua lasterka, hipaka, bere amaren besotarat.*

**KATIXA:** Zato eneganat, haur maitia. Ez naiz ni maite dituzunetaz bekhaiztuko... Amak ez dire bekhaizten.

*Biak besarkhatuak daudez.*

## **ZORTZIGARREN AGERRALDIA**

*Proasionian aphaindurik zauden gizonak sartzen dire, xirolari eta atabalariak aitziñian. Gibeletik, gizon emazte eta haurrak. Exkerretako atheladatik sartzen dire Maiderekin adixkidiak, beren jauntzkura igandetakue-*

*tan. Maider, oraño xuriz aphaindua, sartzen da etxian eta agertzen da balkoñean leihuen idekitzeko. — Gero, bere gelako barne leihuak hesten ditu.*

*Harrasiaren eta ostatuko alkien gañian jartzten dire ikustalliak. Zenbeit hejako paretari bizkharrez daude.*

*Dantzak hari direlarik, Kantariak diote:*

*Hor dire soñulariak (bis)*

*Jo zazue gora dantzariak!*

*Hor dire soñulariak (bis)*

*Jo zazue, neska gizon gaztiak*

*Ariñki lerra zaitezte...*

*Ariñki jauzi egiñ...*

*Izanez gai eta gazte,*

*Ariñki josta behiñ...*

*(Jo goiti ariñ-ariñ)*

*Adiñ hortan, nihork ez du zangarretan miñ!*

*Hor dire soñulariak (etc.)*

*Gero muxikuak eta azkenik denek fandango.*

## **FANDANGO:**

*Fandangotan hari direlarik, Kantatzen dute zenbeitek.*

*Bizia den bezala harzak, muthilla!*



Zelajez bethi ez badabilla,  
Etzokala zoroki makhurrik billa,  
Baditik oren eztiak...  
Hobenez egun,  
Goza dezagun,  
Bihar zatozkek bertziak...  
Bizia den bezala harzak mutilla:  
Ez gaitut gaizki hasiak.

## **BEDERATZIGARREN AGERRALDIA**

*Danzak akhabatu onduan, gizonak ostatuko  
atharian sartzen dire. Ilhunzeria jausten da.  
Sehiak, Xalbaten langilliek lagundurik, pix-  
ten dituzte gabargi benezianoak eta kape-  
nako gaphiriotarik dilindan ematen.*

*Patziku, Xanxiñ eta Xalbat jartzen dire lehen  
mahañaren inguruan. Bertze gizon eta  
emaztiak erdian, heja aitziñian eta atharia-  
ren gibelian. Haurrak eta nexkak harrasia-  
ren gañian.*

**LEHEN GIZONAK:** Maria!

**BIGARREN GIZONAK:** Amatxi! Edaterat!

**LEHEN GIZONAK:** Hunat arnuua!

*Oihu, arramants, izkiritu, deiadar, eskuzafila,  
makhill ukhaldi mahañen gañian. Sehien  
hirriak.*

*Amatxi, bethi goibel: agertokiaren sarkhuran  
dago, mahañ baten gibelian. Sehieri zathi-  
katzen diozkite galdetzen dituztenak.*

*Maidar agertu da balkoñian doidoia eta itza-  
lian berritz sarthu, Xalbatek behatzen due-  
larik.*

**LEHEN GIZONA:** *(Patzikuren mahañetik hurbill)*  
Errak to, Larru? Behar hituzke bi phersu  
eman besta hunen ongi akhabatzeko eta  
Aisek ihardets lioketek!

**XANXIÑ:** Ba, llagun! Emadak edatekua eta kanta-  
tuko dauiat gau guzia, bardiñ. Badiat,  
zuzenki, behar bezalako amodioaren  
gañian zerbeit erran nahirik.

**PATZIKU:** *(hirriz)* Ongi zuak, hi bahau atxikitzaile!

**XANXIÑ:** *(begiak zerurat)* Aileza bertzerik!

*Behatzalliak hirriz.*

**PATZIKU:** Iklusiko diagu. Bizkitartian, iduritzen  
beitzaitak nola eta zoin aldetarat airatuko  
den hire kantua —xori eder— nik enzuna-

raziko diat bertze xixturik. Bazterrekueri  
hoberenaren hautatzia!

**PATZIKU:** *(Kantaz)*

Bi neskatilla muthill berari nunbeit jarraiki-  
tzen zaizko.

Bat aberatsa, bertzia pollita: Zoin othe du  
hautatuko.

*Llarru* baladi, gure muthillak ez luke duda-  
rik asko:

Moltsarengatik, jo liotzake pollitari laur  
ostiko!

*Amatxik, harrituxia, burua alxatzen du eta  
aditzen ditu persulariaren koplak.*

**BEHATZALLIAK:** *(oihuka)* Hiri Llarru! Hiri!

*Llarruk, lehenik edaten du trago bat, lehen  
gizonak eskañirik, xukatzen ezpañak esku  
bizkarrez eta hasten da.*

Gure herriko panpiñak  
Kardatx idorrez egiñak,  
Athera gabe hagiñak,  
Pixten ditu ezkontmiñak.

**BEHATZALLIAK:**

Hola gaitza!

**LLARRU:**

Oi! Galtzadun panpiñ gazte,  
Guganat hurbill zaitezte,  
Gaitezen senhar emazte:  
Pazkoz aitziñ Mendekoste!...

**BEHATZALLIAK:**

Brabo! Brabo! (*Eskuzafalak.*)

**PATZIKU:**

Bazterreko mutzurdiñak,  
Zaphar idorrez egiñak,  
Galdu eta letagiñak  
Pixten ditu bihotz miñak

**BEHATZALLIAK:** (*hirriz*)

Hori duk! Hori duk!

**PATZIKU:**

Galtzadun ollar, ollaxko,  
Egizue kokoriko:  
Gurekiñ zaizte biziko  
Alfer, gizen eta frexko!

**BEHATZALLIAK:**

Emak hor, Aise!

**LLARRU:**

Oi panpiñak! Ikhus gero:  
Hamar bat haur lerroz lerro;  
Tripa hotzik, hortzak bero.

Marrumari hoik nork harro?

**BEHATZALLE BATEK:**

Talo eta esniak!

**LLARRU:**

Prestu egon baziñezte  
Azken hortzak egiñ arte,  
Ezkontza hori, nik uste,  
Hoin karats etzindukete!

**BEHATZALLIAK:**

Biba Llaru!

**PATZIKU:**

Zenbeit urtheren buruan,  
Ez gaituk naski zeruan!  
Sosak iretsi lerruan,  
Hasi zorrak inguruan.  
Eta zuk, ollo gizena,  
—Zirzill izatia eztena!—  
Ahantzi ere, zer phena!  
Kokorikoren izena...

*Behatzalliak hirriz eta eskuzaflaka.*

**LEHEN GIZONAK:** Aise nagusi duk.

*Irrintziñak gibelian.*

*Amatxi hurbilltzen da Patzikurenganat.*

**AMATXI:** Patziku, borthizki mintzatu zare, bañan sanoki. Kantatu ditutzunak asmatu ditut lehenxago, eta, gañerat, ezagutu dut egiazko amodio baten galzerat nindoala, nitarik eta ene urthetarik urrundu denaren aztaparkatzeko. Zer? Eskatu eta, ez ardies-teko. Zuk erakutsiari ihardesten diot. Aski hortan. Ez naiz kukullduko eta ttikituko hobendun ezditakenari barkhatuz.

*Oihu egiten du balkoñaren alderat.*

Zato, Maider!

*Maiderek, Amatxiren boza ezagutziarekiñ oihu ttiki bat egiten du eta saltzen da bere gelan.*

## **HAMARGARREN AGERRALDIA**

Berak — eskas Maider

**AMATXI:** (*Xalbati*) Zuk eragiñ duzu etxe huntan egiazko oñhaziaren lehen hazia. Enetzat hartzen dut iraka, eta bihi garbia zueri uzten. Maiderek eztu pairakunderik behar.

Nik badakit zer diren ziñak eta miñak... Bat gihiago jasanen dut.

*Maider hor da.*

## HAMEKAGARREN AGERRALDIA

Berak — Maider

**AMATXI:** Barkhatzen dautzuet, nahiz edo ez nahiz, egiñ dautazuen miña... Maitha zazue elgar...

**MAIDER:** *(Amatxiren besoetan)*

Amatxi!

*(Elgar besarkatzen dute.)*

**AMATXI:**

Bai, Amatxi! Ene haur maitia...

Izen hori, orai hoin ezta,

Zuk dautazu eman lehenbixi...

Gozo zautan zukanik: Amatxi!

Eta geroz, hemen edozoñek...

Gazte, zahar —Katixa! zeronek—

Dautazue lothu izen bera...

Ez bainauket nihundik athera.

Zahartu nau, tenoriak jo gabe...  
Bai, Amatxi — Gaxuxaren jabe —  
Bathajoko izen bat egiñ zen:  
Amatxi naiz bethiko gelditzen...

*(eztikiago)*

Maidar! Xalbat! Noizpeit dathorrenak,  
Entzun eta ditudan izenak,  
Ez izanik ene alabatxi,  
Deituko nau hark ere: Amatxi!

**KATIXA:** *(leihotik)*

Ez da zeruan saindurik  
Amatxi bezalakorik.

**XANXIÑ:** *(arraitua)*

Munduan ez da etxerik  
Guria bezain atxikirik.

**PATZIKU:**

Ezta herrian alferrik  
Llarru bezain dohatsurik.

**MAIDER ETA XALBAT:** *(batian)*

Millesker gora. Millesker zuri.  
Gure barnerat duzu ixuri  
Nihork ez daukan beraztasuna.  
Gure bihotzek, egun hoin hertxi,  
Badute bardiñ lekhu, Amatxi,



Ohaztatzeko zure izena!

**PATZIKU:**

Gure aitonen kantuak  
Ziren zenzuz hanpatuak.  
Zioten: Gutaz ezkaitezilla  
Izan sobera hartuak.  
Mundu huntako frutuak

*(Baitziren)*

Baitzin balsan metatuak:  
Bakotxak hetaz zeramatzala  
Onak eta hirotuak.

*Denek kantatzen dute berritz kopla hori, eta  
baduazi athera toki guzietarik.*

## **HAMABIGARREN AGERRALDIA**

Amatxi — Maider — Xalbat — Xanxiñ —  
Patziku — Katixa (leihuan) — Lehen gizona  
(ténor)

*Sehiek billtzen dituzte botillak, eta gabargiak  
iraungitzen.*

*Xalbat eta Maider elkarri beha dauzi.*

*Patzikuk eskua hartu dio Amatxiri, indar emateko.*

*Xanxiñ bere andriarenganat gan da eta harekiñ leihuan dago, bañan kanpoko aldetik. Mainer badua, ixurbaturik, bere gelarat, bere zorionaren gordetzeko.*

**PATZIKU:** Guazen Xalbat!

**XALBAT:** (eztiki) Gau on. Bihar arte, Gaxuxa!

**PATZIKU:** Ba. Jainkuak dizula gau on.

*Amatxik buruz ihardesten diote.*

*Patziku, Xalbat eta lehen gizona baduazi eta urhuntzian kantatzen dute:*

Bizia den bezala hartzak muthilla (etc.)

## **HAMAHIRURGARREN AGERRALDIA**

*Amatxi, eta berehala Mainer balkoñian arrosa billtzen, bere gelako ama birjinaren oñetan emateko.*

*Gizonen bozak guttitzen eta galtzen dire.*

*Hillargia agertzen da eta, haritz hostuen artetik, argitzen du Amatxiren begitarte etsitua.*

*Orduan, emazte dohakabiari iduritzen zajo,  
holako hustasun izigarriari buruz, erroitz  
hondorik gabeko baten aitziñian dagola;  
burzorak zangoen gañian itzulazten du eta  
erorazten alkhi batetarat, diolarik:*

O! Jainko! Jainko ona!

*Maiderek uzten ditu, bat banazka, erortzerat  
Amatxiren begitarteraño bildurikako arro-  
sen hostuak marmaritziarekiñ, berazki:*

Amatxi!. Amatxi!

*Hostoak, baratxe-baratxe, jausten dire, estal-  
kia ere jausten delarik.*

BURURANTZA

Bidarten 1913ko Urriaren 19an.  
ETIENNE DECREPT